

## Ander Arzelus Toledo “Luzear” (1898 - 1949)

### Sei Eguberriren abestia

Berandu dator tren Donostiako geltokira. Bost urte eta erdi berandutu da. Eta ez dator Santoña aldetik, 1937ko abuztuan bidea hasi zuen lekutik. Burgostik barrena baizik. Bost urte eta erdi. Geltokiburuaren bulegoa zabalik dago. Egutegia ageri da horman: "El Corazón de Jesús. 1943 / Enero / 13".

Bi lagun jaitsi dira trenetik. Zaharrenak berrogeiak ongi paseak izango ditu; gazteenak, hogeita hamarrik ez. Goizean atera dira Burgosko kartzelatik, elurretan. Isilik datoz. Zaharrenak txapela jantzita dakar, buru ongi soildua estaltzeko eran. Gazteenari ilea sendo datorkio, zuztarretik gora askorik ez bazaio ere ageri. "Bulebarreraino lagunduko dizut", esan du gazteenak. Maleta zahar bana daramate, eta noizean behin geldiarazi egiten ditu kargaren handiak. Bost urte eta erdi. Ez da asko maleta zahar bana. Kale izenetan erreparatzen dute. Hermanos Iturrino. Avenida de España.

Diputazio parean, zaharrenak beste espaloira bultzatu du laguna. Gazteak segituan ulertu du ikusi nahi ez lukeenen bat zetorrela espaloian aurrez aurre. Alameda de Calvo Sotelo. Bulebarreko musika-kioskoraino iritsi dira. "Orduan ez duzu gure etxean afaldu nahi?", esan du zaharrak, nonbait lehen ere erabili duten kontua berrituta. Gazteenak txanpon bat atera du patrikatik eta "zaude" esan nahi duen keinua egin dio. Telefono kabina batera joan, eta handik aritu da hizketan. Labur. Txanpon bat. Atera egin da gero. "Estimatuta dago, Ander, baina zain dauzkat Erreterian. Agur, Ander". Besarkada bat eman diote elkarri. "Agur, Koldo. Toporik ez bada, gurera etorri. Bihar joango zara". Anderrek San Jeronimo kale aldera egin du. Begi bistatik aienatu zaion arte jarraitu du Koldok Anderren eta bere maleta zaharraren errainua.

Bertatik bertara, Kontxa aldera jo du Koldok. Itsasoa. Ez du nahi, baina kresal usainak Duesoko giroa ekarri dio zaplada batean. Ez da itsasoari begira geratu. Utikan Santoña eta Dueso. Easo kalean barrena... ez, Victor Praderan barrena, toporaino. Karmeldarren elizaren parean bonbilla hori bat poste batetik zintzilik, haizeak hara eta hona darabilena. Harantzago, Amarako zingiradia noski. Geltokian galdetu du: "¿El próximo?". Ordu erdi barru. Azkena. *Beniton* hartuko luke kafesne bero bat. Tabakoa erosteko xahutu ditu, ordea, gelditzen zitzaizkion sos apurrak. Zigarroa piztu, jakaren lepoa jaso, eta paretaren kontra bermatu du bizkarra. Ordu erdi.

Ez du nahi, baina kresalak ekarri dio berriz ere Duesoko garaia. Han ezagutu zuen Ander, seguru-etxe batek bezerotzat ez hura eta ez bera hartuko ez zituzkeen garaian. Ander gutxiago, aurrera samar zebilen-eta alderdian, Ajuria, Rezola, Lukirekin. Eta Markiegiarekin. Markiegi zenarekin. Teniente izatera iritsi zen bera. Mitxelena tenientea. A ze tenientea, arraioa! "Beherako" Batailoian, azken putz. Hala ere, heriotza agindu zuten berarentzat ere. Mitxelena tenientea, paretara. Zain egon zitzaion Herioari, bere inguruko asko bezala, Ander ere bezala; ez zen etorri, ordea. Lan handia nonbait aurretik. Egidazurekin hasi ziren, "Perezagua"koa. Otamendi, gero; berarekin epaituak biak ere. Ezin konta ahala, handik aurrera.

Paretaren kontra zeramatenen bati entzun ziola uste du Anderri "Luzear" deitzen. "Luzear, Ajuriak esan dit... Gaur ni". Gau osoa pasatu zuen giza joarekin erreztatzen. Biak ikusi zituen joaten. Goizaldean itzuli zen Ander. Bakarrik. Zuri. Bazkalorduan ausartu zen hitz beste egitera. "Zu al zara Luzear?". Haren baiezkioak barru-barruan sentiarazi zion poza du gogoan. "Zu zara orduan *El Día*ko Euskal Orriaren arduraduna". "Nintzen, gazte; hala nintzen bai". "Etxean gordeta daukat zuk euskaratu zenuen Dickens *Eguarri abestia*, izparringitik moztu eta neronek koadernatuta". Beste errealitate bat bazegoela, izan zela behintzat, eta hartaz hitz egiteak on egiten zien.

Topoaren traka-trakak ekarri du berriz Koldo oroitzapenen erresumatik urtarril hartako iluntze haize finak erasanera. "La Herrera". Uztarria eta geziak. Karramarroa... Nahiago oroitzapenen erresumara bidaia atzera egin.

Hamasei urte egin gabe, Erreterian. Martxoa zen. Epailla. Egunero bezala *El Día* erosi, eta *Euskal Orrian* iragarki hau: "IGANDEAN asiko gera noski, ingeleratik itzulitako 'nobelatxo' bizi, irakurgarri, labur bat argitaratzen. Ebaki ta jasotzeko eran azalduko da". Jakin-minak egon zen igandea noiz etorriko. Larunbatean beste iragarki bat: "Dollorkeria... Eguarri... Alaitasuna... Illunpea... Kate soñuak... Sorginkeria... Atzo... Gaur... Biyar... Dickens'en 'Eguarri Abestia' biyar ezkerro 'Euskal Orria'n'".

Ordurako hasita zegoen euskal gauzak irakurtzen. *Argia* batez ere. Liburutxoren bat edo beste ere bai. Baina Dickens... Hainbeste aldiz irakurritako *David Copperfield* den egilea, euskaratuta! Ezin galdu inola ere. Igandean, goizean goiz jaitsi zen egunkariaren bila. Alamedan zabaldu zuen. Aulki batean eserita ikusi zuen orri barreean, "EGUARRI ABESTIA / Charles Dickens / 'Luzear'ek euskeratua / El Día / 1931 / Donostia". Dickens irudia zetorren aldameneko orrian. Nobelaren hasierarik ez. Ohar bat: "Gaur asten gera, egunkari au eraberritu genunean agindutakoa, betetzen. Ez degu gure asmoa osoro egiterik izan. Euskal irakurgairik atsegiñenetako bat argitaratzekotan baigebiltzan. Baña ori ezin izan dan ezkerro, beste bide batetik jo degu: arrotz elertietara jua eta idazle ospetsuenen idaztirik gallenenak euskeratzeko gogo biziak garabil. Saio bidez, Dickens, idazle bikañaren ipui bat dakartzutegu. Aur biurturik irakur ezazute biotzikaraz dardar jarri zaitezten; baña larrientzat ere ikasbide egokirik arkituko dezute aur-ipuitxo azalpean. Zuei dagokizute, saio au atsegin zaizuten ala ez azaltzea: txaloak, izatekotan, idazlearentzat bitez... euskeratzalleak ez baitio akats pilla bat besterik erantsi. Gure idazti-zatiak gaurko neurri berean azalduko dira. Ara nola jaso bear dituzuten: Aurrena, guzia ixten duten lerrotatik kontuz ebaki. Gero, ezkerrean daukazuten goitik-berako lerrotxo ortatik gorantz zuenganantz tolestu (doblatu). Erdi-erdiko lerrotik berriz beste aldera, atzerantz tolestu. Eta ortan, onela geldituko zaizute gaurko zatitxoak: Ezkerrean idaztia josteko utsunea (*El día* ta abar diona). Aurrez-aurre, idazti gaña. Atzera tolestuta, Dickens-en irudia. Ta egunero auxe egiten dezutela idazti polit baten jabe zerate laster. Agur ba, ta egunero artu *El Día*".

Nobelaren hasierarik ez, ordea. Astelehenean, berriz, egunkaririk ez. Asteartekoan, bi orri mozteko: "Lenengo aapaldia: Marlegiren Mamutzarra". Ahoz gora hasi zen ohe gainean irakurtzen: "Marlegi illa zan. Au iñork zalantza apurrik gabe sinisteko eran idatzi nai nuke aurren-aurrena...".

Bi hilabete iraun zuen kontuak. Apirilaren azkena arte, hogeita bost emanaldi, Aste Santuko etena eta Errepublika berriaren aldarrikapena tartean. Hogeita bostak ebaki, tolestu, eta koadernarazi egin zituen. Bera-Lopez Mendizabalen hiztegia ezkerrean, eta koadernotxo bat eskuinean, ipuin osoa segidan irakurri eta ulertzen ez zituen hitzak apuntatu zituen. Gozatu egin zuen liburua.

Sei Eguberri jai igaro dituzte elkarrekin itzalpean. Koldok, Villarrealgo guda-oinean, euri, odol eta basatza artean pasatu zuenarekin, zazpi. Elkarrekin pasatu zuten aurrenekoa, Larrinagakoa, laborriz oharkabean pasatu zen, azkena izan zitekeelako uste osoan baitzeuden; eta Burgosko azkena, berriz, esperantza betean joan berri zaie. Sei Eguberrian ez zaie gogoutsik agertu. Ezkurak edo Scroogeak bai, makina bat, zintzotze handirik gabeak gainera. "Kartzelarik ez al dago?" galdetzen duen jende modua, asko. "Gehiegi bezala" erantzuten duena, gutxi. Sekulan ez du ahaztuko Burgosko espetxera zihoazela, tren geltokitik abiatu eta kartzelaraino herri barrutik nola eramán zituzten preso guztiak binaka elkarri lotuak, eta nola Burgosko jendeak iraindu, karkaxa bota eta jo arterainoko guztiak egin zizkieten. Anderri txapela bota zioten esku-ukaldi batez, eta, ez makurtzeagatik, bertan utzi zuen.

Ikasteko erabili du kartzela Koldok. Eta ez du gizalegea ikasgairik kaxkarrena izan. Betiko atxiki nahi du gai horretan maisu, beste gutxi batzuen artean, Ander. Luzearrek euskara irakasten zuen kartzelan. Irakasbide bat ere taxutu zuen osorik ez bada ere zerbait. Koldok "au maia da" eta horrelakoez aurrerakoak behar zituen, ordea. Aditzaren malkarretan gora egin nahi zuen, eta horretarako Felipe Lizaso hartu zuen maisu; Paco Jordá eta Aguado komunista, latinerako eta grezierarako; baina gehiago ere nahi zuen: idazkortza, luma, zorroztu. Idatzi. Esaldi bat besteari josi, *Eguarri abestian* bezala, irakurri eta gozatzeko moduko testuak sortu. Horretan Anderrek zekien, inork jakitekotan. Gai horretan ordu arte egin zenaz asko zekien; egin nahi zuenaz, ez gutxi. Gustura hartuko zuten *Eguarri abesti* hura elkarrekin lantzeko berriz. Ezin, ordea. Modurik ez, hura itzalpera sartzeko. Dickensen beste Eguberri ipuin bat oinarri hartuta, Anderrek antzerki lan bat idatzi zuen, *Kilkir abestia*, "Eresidun antzerkia". Beste preso batek, Bengoak, jarri zion eresia, musika.

Espetxeak anaitasun-lokarriak sortzen baititu idazle izan diren eta ez direnen artean, gogoan du Koldok Wilderen ipuin hura itzultzea pentsatu zuen garaia. *Erraldoi berekoia*. Gogoan ditu atera zituen izerdi hotzak testu ustez xume hura euskaratzen. Gogoan ditu Anderren aholkuak, eta haren zuzenketak ere gogoan. Gogoan du, batez ere, Anderren umorea, 1940ko estropaden berri jakin zutenean, esaterako –gauza sakratuen zerranda egiten hasi eta Jainkoa, euskara, aberria eta familiaren hurrena, estropadak jarriko zituen Anderrek–: urte hartakoak donostiarrek irabazi zituztela etorri zitzaizen gaztigua kanpotik. Koldok, errenteriarra izaki, bertso batzuk idatzi zituen donostiar panparroien kontura barre eginez. Anderrek barrez irakurri zituen, eta baita kantatu ere Iradi eta Mendizabal donostiarrekin batera. Azkeneko arrazoi hura datorkio bat-batean: "Beste olakorik ikusterako / luza bear zaizu bizarra!".

Kokotspea igurtzi du esku gainaz eta gogorapen gozo batek eragindako irribarrearekin sartu da trena Errenteriako geltokian. Zain dauzka aita pontekoaren semea, Pio Etxeberria, eta bere familiakoak. Besarkadak labur, eta etxe aldera abiatu dira. Biharamunean ikusiko dituela denak, orain uzteko amarekin bakarrik.

Mikela Zuloko arkupean pasatu da, ama alargunaren aurpegia gogoratu nahian, Larrinagako Eguberri haietatik ikusi gabea baitzuen; Gabon aurreko astean, ehun eta hogeitaka lagun fusilatu zituzten, eta suerte txarra da guztia, baina aste hartan egokitu behar kartzelaldi osoan amak egiterik izan zion bisita bakarra. Goiko kalera dator bueltan, zazpi Eguberriren buruan, xextogilearen semea. Atarian, eskua eraman du patrikara. Alferrik. Ez du giltzarik. Atea jo du. Ama jaitsi zaio. Irribarre murriz bat. "Etorri altzea?".

Ama afalduta dago. Begira egon zaio semeak afaldu duen bitartean. Ez dute kontu handirik erabili. "Etorri altzea?". Ohera baino lehen, ganbarara joan nahi du semeak. Han maletatxo gorri batean gorde zituela gauza batzuk. "Liburuak?", igarri dio amak. 2Bai, haietako bat irakurri nahi nuke oheratu aurretik". "Sentitzen dut, seme, zu egon zaren lekua ez zen txukun-txukuna izango, baina hemen ere senperrenak ikusarazi dizkigute. Edozein huskeriagatik hiltzen zuten jendea...". "Bota egin zenituen...". "Ez, erre... Baina denak ez; euskarazkoak eta...".

## Luzear eta Mitxelena

Gaur hemen aurkezten dudan *Eguarri Abestiaren* argitalpen hau ez litzateke irakurlearen eskuetara iritsiko, Koldo Mitxelenaren seta berezi bat egon izan ez balitz tarteko: bai bere idatzietan, bai berari egindako hainbat elkarrizketetan maiz aipatzen du adiskide eta maisu izan zuenaren izena; eta Luzearrez ari dela, errenteriarrek beti edo gehienetan aipatzen du Arzelusek itzuli zuela Dickens *The Christmas Carol*. Aipu horiek, harri txuri horiek utzi izan ez balitu han eta hemen itzulpen horren bilaketarako, orain arte bezala ahaztua egongo litzateke *El Día* gordetzen

duten hemerroteketan. Nik behintzat Mitxelenak akuilatuta jo nuen orri mikrofilmatu horietara, eta kostatu bazitzaidan ere –*El Díak* irauñ zuen urteetako Eguberri garaietatik hasi bainuen bilaketa, eta errealitatea ez baita askotan horren logikoa izaten–, azkenean behintzat aurkitu nuen, 1931ko martxoaren 15ean hasi eta apirilaren 30ean buka, *Eguarri Abestia* osorik.

Osorik irakurri ondoren, garbi edukiko du irakurleak arrazoi zuela Mitxelenak bere setarekin. Arrazoiak zuten, baita ere, inoiz errietan egiten zigularik ohartaraziz zein ahanzkorrak garen euskaldunok iraganean egindako lanekin eta zein eskergabe, onerako nabarmendutako pertsonekin.

### Ander Arzelus Toledo

1898ko abuztuaren 15ean jaio zen Ander, Donostiako parte zaharrea, San Jeronimo kaleko 21ean. Hilabete gutxi zituela, kale bereko 23ra joan zen familiarekin bizitzera. Andres eta Naxari zituen gurasoak. Hamabi anai-arreben artean, bera zen zaharrena. Ikasketak Donostiako Marianistekin egin zituen. Hamasei urte bete zituenean jarri behar izan zuen lanean, Donostiako Aurrezki Kutxan, eta bertan aritu zen lanean, harik eta, 1936an, gerra piztu zen arte. 1923an, Amalia Arrietarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituen.

### Kulturgintza

1921ean sortu zen *Argia* asterokoa, Donostian. Hura izan zuen Arzelusek euskal idazle izateko aurreneko eskola. Horrela ematen du berak, 1931n, Gregorio Mujika hil dela eta, bere irakasleen berri: "Beste eriotz negargarri batek, Karrera apaiz jaun argiarenak, onen utsa betetzera eraman nindun [*Argiara*]. 'Anabi'-ri [Augustin Anabitarteri] eskerrak, nere burua euskal elerti bidean arkitu nuanean, nere aldamenean neramazkien bidelagunai begiraturik, neronen ausardiak txunditu ninduan: 'Garbi' (Garitaonandiar Bitor), 'Elurmendi' (Intzagarai apaiz jauna), 'Jeme' (Mujikatar Gregorio), 'Anabi' bera, 'Egizale'. Baña beingoz ez nuan atzera egin, eta 'Kirikiño' elerti azikeran aurzai bezela izan banuan, oek izan ziran aurrera bideak urratu zizkidaten lagun ikasiagoak. *Argian*, ditadurako urteak zalantza bizian, ekaitzik gogorrean 'oraingo onek zapalduko gatxiok' esanaz olatu amorratuai begira itxaso erdian larritasunik gorrienak elkarrekin ikusi dituzten arrantzale gizajoak bezela bizitu geranok ezin inola ere elkar aztu, naiz ta gero, nola ez dakigula, oraindik ere garbi ikusten ez degun eran, elkarrengandik, bat-batean, sakabanatuta arkitu".

Idazten hasi eta berehala asmatu zuen, orduan ohikoa zen bezala (beharrezkoa ere bai, ez ahaztu diktadurapean zirela), bizitza osoan idazlanak izenpetzeko erabili zuen izenordea: "Luzear" (Arzeluz alderantziz jarria, alegia). Urteetan, herrietako berriemaileen saila, "Euskalerriko berriak", kudeatu zuen *Argian*. 1926tik aurrera, borroka pertsonal batean jardun zuen: *Txistu* proiektua, haurrentzako aldizkari bat komikiz eta ipuinez betea, *Argiarekin* batera banatu izan zena, ez eragozpenik gabe.

*Argiaren* zuzendari izatera ere iritsi zen, Bitor Garitaonandia hil zenean (1929), baina denbora gutxiko. Hain zuzen ere, beste proiektu handi batean sartu baitzen buru-belarri. 1930eko ekainean sortu zen *El Día* egunkaria. Bertan "Euskal Orria"ren arduradun jarri zuten Luzear. Eta bertako arduradun izaten jarraitu zuen gerra piztu zen arte. Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan, eztabaida bat sortu zen Euskaltzaleak bazkunaren eta Eusko Ikaskuntzaren baitan, eta guregana heldu da, gehienbat, Lizardiren hainbat artikuluren bidez, euskal egunkari baten beharri buruzkoa, hain zuzen ere. Eztabaida eta ametsa esan beharko dugu, ordea. *Argia* asterokoa eguneroko kazeta bihurtzea izan zuten amets lehenbizi; Euskal Orria, Euskal Eguneroko bihurtzea gero. Eta hori iristen ez zen bitartean, *El Día* zeukaten. Orrialde bat. Eztabaida horien atzean zebilen Luzear, buru-belarri. Amets horren atzetik orpoz orpo.

Eztabaidak gogoko zituen Luzearrek, eta bero dihardu eztabaidan. Karlisten *La Constancia* eta ezkertiarren *La Voz de Guipúzcoa* egunkarietan argitaratzen ziren iritzi emaileen kontra ari zen sarri askotan. Baina baita *El Dían* bertan edo *Euzkadi* egunkari abertzaleetan agertutako iritzi batzuen kontra ere. Lauaxetarekin badu eztabaida sutu pare bat, "Gurbindo"rekin beste bat, eta beste hainbatekin ere bai. Nor zen orduantxe sortzen ari den Euskal Idazleen Batzan sartzeko gai? Batzuek zioten, Lauaxeta tarteko, abertzaleak bakarrik sar zitezkeela delako elkarte horretan; Luzearrek, Lizardi dakar gogora kontrako iritziaren alde egiteko: "Aberri errota ibiltzeko, abertzale guziorrekin kemenak bat egiñik ere ez ditugu naikoa. Abertzaletasuna, gurea dana maitasunez zaitzea izanik, euskera, aberri ezaugarriarik bizi ta nabarmenena maite duan, aberria neurri txikian bederik maite du. Ta aberri maitasun apur oiekin, aritxo bat emendik, beste bat andik, errekatxoa osa-tu; errekatxo onen ura beste arenekin bat egiñik, ibaitxoa; ibai bat, bi, iru ibairen indarra batu ta gure indarrari erantsita, guziorre errota ibilaraztea ez ote genuke errezagoa?". Luzearren eztabaidarik gogokoena, sutuena, euskara jakintza bidean eragozpen ikusten zutenen aurkakoa da: "Ez da munduan jakintza bide izateko gai ez dan izkerarik. Gor-mutuai ere erakutsi bear zaiena, beren izkera (?) bereziz egin bearke zaie, Fray Luis de Leon-en Odarik ederrenak belarri ertzerara esatea alperrikakoa litzaken ezkerre. Danik eta izkuntzik atzeratuanagatik ere ezin esan leike, beraz, jakintza gaitan eragozpen danik. Gañontzean espanezagatik ere berdin esan genezake, doixtar eta parantzetarrek beren izkeratan idatzi oi dituen idatzi sakonak, espaneza utsa dakitenentzat, Castelaren itzaldirik apañena gor-mutuentzat bezin lokotx uts lirakelako. Euskera, berez, beste edozein izkuntz bezin aberatsa izanik, ez bedi beñere esan jakintza bidean eragozpen danik. Geron buruen gain bota dezagun erru guzia, esan dezagun argi ez degula euskera jakintza-izkera izatea nai, gerok maite ez degulako besterik ez".

*El Díako* "Euskal Orria"n bere artikuluak argitaratzea ez ezik, eta batez ere, besterenak argitaratzea zuen buruhausterik handiena, eta idazle eginak eta ez hain eginak idazten jartzea izan zuen merituatariko bat. Mutila zen zirikatzen. Zirikatzen ditu idazleak, gehiago idatz dezaten; zirikatzen ditu haurrak, zerbait idatz dezaten; egunkariko linotipistak, akatsik egin ez dezaten; beste egunkarietako iritzi emaileak zirikatzen ditu... *El Díako* zuzendaritza bera ere ez da libre geratzen. Euskarazko orrialde bakarra zeukan egunkariak, eta zazpi urteko bere ibilbidean nabarmen ikusten da zuzendaritzarekin eduki zuen tirabira, alde batetik, "Euskal Orria" euskal orri osoa izan zedin, eta, iragarkiak edo bestelako premiak zirela-eta, ez ziezaioten orri erdia jan; eta bestetik, euskara bere orri-txokotik atera eta lehen plamara eramateko. Euskararekiko konpromiso osoa eskatzen baitzuen: "Itzez buruz gain eginda gaude. Gizonai gizon bezela itz egitea dagokio. Ta garbi esan: euskaltzaleak al zerate ala ez? Ez!?! Onela, gauzak garbi, nor norekin gabiltzan jakiteko. Ta ez umeak bagiña bezela gurekin jostaketan ibilli. Jaunak, euskaltzale ezpazerate, jakin dezagun, oraintxe oneraño bete gera ta".

Hitz batez definitu behar bagenu Luzear eta bere bizitza oso-ko lana, baina batez ere, Errepublikara garaian aurrera atera zuena, "euskaltzalea" izango litzateke hitz hori. Lan idatzia da batez ere bere arloa, hor aritu zen beteen, baina horretaz gain, bazuen beste alderdi bat, bultzatzaile eta antolatzailearena. Esan dugu jendea idaztera jarri zuela, *Argiako* idazle-agenda ia osorik hustu zuen *El Dían*, eta emakumeak jarri zituen idazten; bere eskutik eduki zuten plaza irekia Elbira Zipitriak eta Tene Mujikak, esaterako: "Beti entzun oi degu, 'Euskal Orria'k motelak, gatzik gabeak, irakurtzeko gogorik ematen ez dutenak izaten dirala. 'Erritako berriak, erritarrentzat aintbestean ¿baña gañontzekoai zer dijuakigu ba?' entzungo zaiote bein eta berriz. Gai politik ez omen darabilgu euskal idazleak. Arrazoi dutela esango al degu? Alabaña bete-betean oker daudenik ezin esan dezakegu ordea. Ala ere, ikusi bezate euskal idazle arinok nola jaio eta indartu geran: nai bada umekeriak idatziaz. Zokoratu ditzazute umekeriok, zokoratu erri izperrak, zokoratu erdipurdi idatzita datorren idazkia, euskal idazle izan zitezken idazkigille oiek guziak ere beren lanekin batera zokoratu ta baztertu dituzute, ta nortzun irakurgaiak argitaratuko ditugu 'Euskal Orri'etan? Salaberriarenak? Unamunorenak? Barojarenak? Euskal idazle jator askoak baditugula? Bai orixe. Baña... erderaz idatzitakoak 'biotzian poza eman oi digun otsa darion txintxin'a ematen ordea, ta



euskerazkoak, oraingoz, 'txintxin otsik gabeko poza' oxta-oxta. Onegatik, idazle txukun, alai, goxo, irakurgarriak sortu niaz, emakumezkoak begiz jo ditut. Gaurkoz 'txintxin ots' gabe errexago dantzatuko ote diran derizkiot, arreba maitiok euskera aldez gogor jardun naiean nabaitzen baiditut. Badira oen artean ere idazle egiñak, eta ez gutxi errex egingo diranak. Aiek mugatu, ta oek bultzaka bada ere ateratzea, nere gain artu nai dedala jakitea, ez deritzait beraz irakurleari ez dijuakion arazoa. Guzien gogoa ez al da ba, alik laxterren, 'Euskal Orria' edozein erdel orri bezin irakurgarria arkitzea?".

Nekez aurkituko da ekintza euskaltzale bat garai hartan Luzear bertan egon gabe, edo are, haren parte-hartze zuzenik gabe. Donostian eta Gipuzkoan behintzat, ez. Orobat, Donostiako euskaltzaletasunaren bultzatzaile handiak laguntzaile ederra izan zuen, eta ezin hemen aipatu gabe utzi. Bata bestearen laguntzaile baino, elkarren laguntzaile izan zirela esan daiteke: Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus. Bi izen horiek, neurri handi batean, elkarrekin doaz itxaropen bideko urte horietan. Zubimendik sortu zuen, 1931n, eta berak kudeatu zuen 1936a arte, *El Pueblo Vasco* Rafael Picavea "Alcibar"en egunkariko euskal orria (asterokoa) "Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde" izenburua zuena. Beraz Luzear *El Día*n eguneroko atalarekin eta Zubimendi *El Pueblo Vascon*, astero, euskal erreferentzia nagusi bihurtu ziren Gipuzkoan. Maiz samar argitaratu zuten, gainera, artikulurik bion izenpearekin.

Bada artikulua bat Luzearrena, 1931ko irailean *El Pueblo Vascon* argitaratutakoa, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa laburtzen duena. Izenburu adierazgarriagorik nekez aurkitu: "Irudipen zoroak". "Antzokia! (Teatroa). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak. Jakiña, gauza guzitarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik ezpadator...". Hiru zutabe horiek ikusten ditu beharrezkoen, egunkariarenaz gain, euskaltzaletasuna zabaltzeko. Antzerkian aurrera egin zuten, eta ez gutxi. Zineman huts egin zuten, zezakeenak ez baitzuen eskurik zabaldu, baina irratigintzan, behintzat, lortu zuten "irudipen zoro" hori aurrera ateratzea. Astean behingo saio bat lortu baitzuten euskara hutsez egin, 1932tik aurrera, Donostiako *Unión Radion*. Arduradunak, Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus "Luzear".

Luzear kazetaria goraiatzea izan zen Mitxelenaren beste setatako bat. Maiz aipatzen du bere idatzietan eta elkarrizketetan adiskidearen alderdi hori. Era askotako idazlanak ditu *El Día*ko "Euskal Orria"n argitaratuak. Lehen aipatu dugun kudeaketaz gain, bere izenpea agertzen baita hainbat eta hainbat artikuluren barrenean. Hiru eratakoak dira nagusi: Iritzi artikulua daude aurrena, ez oso luzeak, labur-laburrak asko ("tantoak" izendatzen ditu halakoak), euskarari buruzkoak gehienak, baina baita politikoak ere, ahaztu gabe umorezko hainbat, antzerki kritikak... Ez dakit ausartegia ez ote den esatea zutabe-idazle aurrekaria izan zela Luzear; hurrena daude erreportaje tankerako idazlanak, Lizarrako bilera politikoa dela, Ama Birjina Ezkion agertu dela, Olerti Eguna dela, Antzerti Eguna dela, edo Txirritaren omenaldia dela, han dago Luzear bere aterkiarekin eta beti baten batek autoz eramana edo bere kasa trenez joanda, ikusi duenaren kontakizun bizia egiten; eta azkenik daude handik eta hemendik hartutako antzerkitxo laburrak, ipuintxoak eta abar berak sortutakoak edo beste hizkuntzaren batetik berak egokitutakoak. Azken horiek gehienbat.

Ez dugu ahaztu behar hori dena Donostiako Aurrezki Kutxako lanaz gain egiten zuela. Alegia, Aurrezki Kutxatik ateratzen zuela bizibidea, eta euskarari eskaintzen ziola denbora libre ia osorik.

### **Politikagintza gerra aurrean eta gerra garaian**

Ander Arzelusen aita, Andres, Sabino Aranaren aurren-aurre-netako jarriztaileetakoa izan zen Donostian. Donostiako abertzaleei "bizkaitarrak" deitzen zieten garaian hain zuzen ere. Anderrek, beraz, etxetik jaso zuen politikarako zaletasuna.

1930ean eman zuen izena EAJ alderdian. Hain zuzen ere, diktadura osoan barrena bananduta egon ziren alderdiko bi sektoreak, "Comuni3n" eta "Aberri", atzera bildu ziren urtean. 1935eko otsailean, Gipuzkoa Buru Batzarreko kide egin zuten Zumarragan, Doroteo Ziaurritz tolosarra EBBko buru zela, eta, besteak beste, Edorta Alberdi, Elias Etxeberria, Ander Bereziartua, Pablo Egibar edo Florentzio Markiegi Gipuzkoa aldetik kide zituela. Ez zuen asko pentsatuko EBBko bilera hartan ezagutu zuen gazte bat, Juan Ajuariagerra, izango zuenik urteetan hogeita lau orduko gelakide behartua.

Hurrengo urtean etorri zen bere bizitza irauli zuen gertakaria: Gerra. Gipuzkoan ibili zen antolaketa lanetan, harik eta probintzia osoa faxisten mende erori zen arte. Bizkaira pasatu zen gero, eta hango antolakuntza politikoan sartu zen. 1936ko irailean, Donostia erortzean, Jose Antonio Agirre, Franzisko Basterretxea eta Juan Ajuriagerrarekin batera, hegazkina hartu eta Madrila egin zuen txango, bidez esanda, nahikoa bidaia arriskutsua, Burgos gainera, matxinatuen gainera pasatu behar zutelako. Madrilen, Largo Caballeroren gobernuarekin negoziatu zuten Euskal Estatutua (edo "Arandia", garai hartako hainbat idazlek euskaraz esaten zioten bezala). Urriaren 7an eratu zen Eusko Jaurlaritza, Gernikan. Arzelus bertan zegoen. Bilbo faxisten mende erori zen arte, 1937ko ekainean, Bilbon bertan bizi izan zen, familiarekin. 1937ko urtarrilean sortu zen euskara hutsezko aurreneko egunkaria: *Eguna*. Gerra garaian bihurtu zen paper hainbeste aldiz erabilitako ametsa. Sei hilabete, ekaina arte, iraun zuen amets horrek, amesgaizto bihurtu aurretik. Kazetaren sorkuntzan parte-hartze zuzena izan bazuen ere, ez dirudi gero askorik idatzi zuenik bertan. Berak izenpetuta, artikulu bakarra aurkitu dut, nik behintzat, hasiera-hasieran argitaratua eta bakea eskatzen zuena: "Ez gorrotorik" zuen izenburu.

Faxistak Bilbon sartu aurretik, emaztea eta seme-alabak "La Habana" itsasontzian sartu, eta Frantziara bidali zituen Luzearrek. Handik harakoak ezagunak dira. Bilbo utzi, eta Santander aldera. Han, azken uneetan, eta Lehendakaria eta EBBko presidentea hegazkinez salbo utzi eta gero, zozketa egin zuten alderdiko zein kargudun geratuko zen eta zein joango zen atzerrira erabakitzeko. Luzearri harri beltza egokitu zitzaion. Santoñan preso hartu, eta Duesora eramane zuten. Italiarren esku lehenbizi, frankisten atzaparretan gero. Epaitu eta heriotza zigorra ezarri zioten. Italiarrek beren hitza hautsi zutela eta Ajuriagerra gose greban jarri zen; Ajuriagerrak gose greba hura gelditzeko agindua sinatu zuten burukideetako izan zen Luzear. "Reunidos en el Dueso hoy nueve de septiembre, Arzelus, Markiegi, Alberdi, Unzeta, Artetxe y Solaun, acuerdan comunicar a Axuriagerra, que en evitaci3n de un conflicto mayor que pudiera resultar m3s perjudicial para todos, debe desde este momento deponer su actitud y empezar de nuevo a alimentarse". Duesotik Larrinagara itsasontzi baten sotoan sartuta, 1937ko azaroan, San Andres egunean hain zuzen; eta handik berehala, 1938ko uztailean, Burgosko "Prision Central"era. Burgosen lau urte eta erdi egin zituen, horietatik bat, heriotzaren errainua buru gainean zuela. 1942an etorri ziren errebisioak, eta kondena berriak: 14 urteko kondena aurrena, indultua gero. 1943ko urtarrilaren 13an, Koldo Mitxelenarekin batera kartzelatik atera, eta Donostiara.

### **Amalek kontatzen ditu hortik aurrerako batzuk**

«Donostira itzuli zanean, bereala lan billa asi zan, baita "bere lanetan" ere. "Lan" auetako bat, Santa Maria elizako gazteak bildu eta beraien barruan abertzaletasuna piztea izan zan<sup>1</sup>.

Kalean zebillen batean, bere laguna zan Lealtar Nemesio –Leal Garajeko burua– arkitu zun. Onen emaztea "Obras y Construcciones Elizaran"eko jabearen sendikoa zan, eta auek lur-beso (peninsula) guztian zabaldurik zuten etxegintza, Etxe Nagusia Madrident kokaturik. "Te necesito en Madrid" esanez, zuzendaritza eskeñi zion.

»—No te parece que ya he pasado suficiente tiempo fuera de Euzkadi? —Ez zegoen prest gure aita, naiz eta irabazi onak eskeñi, Aberria berriro uzteko.

»Gertakizun au izan eta illabete (gutxi gora-beera) igaro ondoren, erbesteratzeko agindua jaso zun; zeatz-meatz oroitzen ez banaiz ere, berreun ta berrogeitamarren bat kilometrora urrutiratzeko agindua. Leal jaunak, gertatutakoa adierazteko ots-egin bezin laster, Madrideko lana berreskeñi zion.

»Denbora txikia eman zun ba gure artean. Madrideko bidea artu eta an asi zan lanean. Bakardadea jasan eziña zitzaion. Espetxean baño okerrago zegola esaten zun, an beintzat lagun artean zala ta...

»Leal jauna, aita orrela ikusiz, etxe billa asi zan gu ara joan gintezen aal zan azkarrena. Orrela ba, [1943ko] garagarrillaren 15ean, San Isidro egunean ain zuzen, sendi osoa Madridera joan giñan berarekin bizitzera. (...)

»An urte t'erdi inguru egin genitun, naiz ta zigorra iru edo lau illabetera kendu. Zigorrik ez, ezta Donostira itzultzeko lanik ere... Lana arkitu arte, an gelditu bear...

»Alako batean, Donosti aldean, Ernanin ain zuzen ere, lan bat eskeñi zioten "Almidones Remy" olan, idazkola lanerako. Lanbide artan etzun ez Madridentan zun malla, ezta irabazirik ere, baño zalantza txikirik egin gabe, aalik eta laxterren emen giñan, 1944ko iraillan. (...)

»Lamfus jaunak —orduko Kutxako zuzendariak—, aita Donostira etorri zala jakin zunean dei egin zion eta berriro Kutxan lanean asi bear zula esan. Eziñezko amets bat zala pentsatu genun.

»Lamfus leenengotako "Camisa Vieja" zan, eta guk uste baño aalmen aundiagoa zun nunbait, aita berriro an lanean astea lortu zun beñepein.

»Bitarte onetan, aita beti bezela bere "lanetan" asia zan<sup>2</sup>. Au etsaiak nolabait jakin zuten eta egun batean, Kutxan lanean ari zala, bi gizon sartu eta gora, zuzendariarengana, igotzen ikusi zitun. Poliziak zirala ez zun zalantzik egin, onetarako oarmen edo zentzumen berezia dute-ta auekin arremana izan dutenak. Orduan, laneko lagun bateri gertatu zana esan, eta alde egin zun aiek goian ziran artean. Poliziak zuzendariarekin bera jetxi ziranean, aita an etzegola ta, ateraño irten ziran. Une artantxe bertan aita bira egin aal izan zun izkiñan, eta ezkutatzea lortu, bere lankideak gerora kontatu zigun bezela. Ozta-ozta iges egin zun beraz.

»Iru edo lau egunez ezkutatuta egon ondoren, Lamfus jauna Gobernadorearengana (edo alako batengana) joan, eta ea Anderren aurka zer zuten jakin nai izan zun. Ezer gutxirik izango zuten, bere burua aurkeztuz gero, pakean utziko zutela agindu baitzioten. Eta orrela izan zan.

»Gau batean, nere bizi osoan iñoiz aaztuko ez dedan gaua, bi polizi azaldu zitzaizkigun gure aitaren billa. Gure amak, aita etxean ez zala esan eta ikustera sartu nai zuten, baño "Fuero de los españoles" zala ta, "mandamiento judicial" ik gabe, etxe batean ezin zirala sartu eta etzirala sartuko esan zion.

»—Pero, señora, si su marido no está en casa, déjenos entrar a comprobarlo.

»Gure ama, berean gogor; ez zitula sartzen utziko, eta aserre bizian aginduaren billa joan ziran, kanpoko atean polizi bat eta kaleko sarreran beste bi utziz.



»Minutu bat galtzerik ez zegoen, aitak oso argi baitzun ezin zutela arrapatu, geiegi zekila ta oso arriskutsua gertatuko zala. Nolabait iges egin bear zun, baña, nola? Gu irugarrenean bizi giñan, eta soka baten laguntzaz bigarren bizitzako balkoi batera jexten aalegindu zan, baña alperrik, ezin beko bi poliziak ikusi gabe egin. (...)

»Gure sukaldeak barne-bide bat zun zuzenean, baña bereala biurguneak zitun bi aldetara, eskubitara joz komunera iritxi zintezken eta ezker aldera egiñez, kaleko atera. Biurgunea zan zatian sapairik ez genun, arritzekoa bada ere, eta onen ordeztellatua genun gañean, baita laugarren bizitzako bi leio ere. Bitxikeri onegatik, aal zan moduan aita laugarren bizitzako leio batera igotzen lagundu eta bizitza ortan sartuz, andik tellatura irixteko aalegindu bear zula pentsatu genun. Baña au guztia zaratarik gabe egin bear genun, bi arrazoigatik batez ere: bata, atean zegon poliziak ez zun ezer entzun bear; bestea, laugarrenean bizi ziranak lagunak izan arren, auek esnatzea arriskutsua zan, soñurik entzuten bazuten, karrasirik edo egin zezaketen ta. Nola edo ala lortu zun goiko leio batera igo eta bizitzan sartzea, bi semeen laguntzari esker, eta an, argi-zulo batetik tellatura ateratzea, Anderrek (seme zaarrenak) lagunduta. Orduan onek esan zigunez, aita tellatuan ondo utzi zun eta berri onek pixka bat lasaitu gindun; etsaien atzaparretatik iges egin zun beintzat! Bereala oean sartu zan beste guztiak bezela.

»Andik pixka batera, antxe ziran berriro ere gure "lagunak", sartzeko baimena aldean zekartela. Ezin zuten sinistu aita an ez zegonik, eta ikusketa artan etxe guztia arakatu zuten, oi azpi, arasen atzekaldeak, eta abar. Oso asarre ziran amarekin, ez zuten ulertzen ta, zergatik bialdu zituzten aginduaren billa, aita an ez bazan.

»Kezkatuta euki gindun gau osoa, aita tellatuan bakarrik... gaez... nola egongo zan ez jakiteak!

»Urrengo goizean, ondo zegoela esanez, mezu bat bialdu aal izan zigun.

»Tellatuko ibillerak geroago, berekin itzezin aal izan genunean, jakin genitun. Etxeko ataria San Jeronimo karrikan izan arren, bizitzak Puerto karrikako izkiña ere artzen zun. Ortaz, aita tellatura irten ondoren, Puerto kale aldera joan, eta ango balkoi batean sartu eta antxe egin zun gau osoa. Etxe artakoak ezagunak ziran, eta auek Puerto kaletik ateratzen utzi zuten.

»Une artako arazoa gainditu bazun ere, ez da bearrezkoa, andik aurrera ezkutuan ibilli bearke zuela esatea. Donostin eman zitun illabete batzuk, baña ortarako bizarra utzi zun. Eta orrela, iñork ezagutzen ez zuela, ibillalditxoak ere egin zitun irian zear<sup>3</sup>. Orrela ezin zula jarraitu, eta "beste aldera" joan bear izan zun, 1946an».

### **Donibanen azkena**

"Carte d'identité d'étranger temporaire. Arcelus, Andrés. Profession: Sans. 10 decembre 1946. Delivrée 30 decembre 1946. Lieu de résidence et adresse au moment de la remise de la carte: Pau 4 rue des Anglais". Beste aldean, Donibane Lohitzunen bizi izan zen, Villa Briseis-en, EAJK alokaturiko etxean. Bertan sortu zuten Joseba Rezolak eta biak, alderdiaren aginduz, isilpean emititzen zuen Euzkadi Irratia. Harekin batera bizi ziren irratiko beste kideak ere: besteak beste, Leonardo Salazar eta Iñaki Durañona. Luzear irratiko zuzendaria izan zen, eta euskarazko egitarauaren arduraduna. Behin baino gehiagotan eten zuten Donostiako "Radio San Sebastián"eko emisioa Francoren kontrako aldarriak jotzeko. Bere kronikak Gorritar Imanol izenordez izenpetzen zituen. *Alderdi* aldizkariko kontseiluan egon zen, eta *Euzko Deya* aldizkarirako ere hainbat artikulu idatzi omen zuen, izenik gabe.

EBBko lehendakariorde izan zen Iparraldean. Alderdiko txosten eta gutunetan "Anselmo" izena erabiltzen da hartaz hitz egitean (EBBko lehendakaria, Doroteo Ziaurriz, "Dionisio" zen): Ander, Andrés, Luzear, Imanol, Anselmo.

1949ko urtarrilean ondoeza egin zitzaion Anderri. Ziaurriz eta Gorostidi sendagile adiskideek begiztatu zuten eta ebakuntza egin beharra zela erabaki zuten; Parisa eraman zuten hango sendagile on batengana. Apirilean egin zioten ebakuntza, baina alferrik. Amale Arzelusek kontatzen du bere liburuxkan zer zailtasun izan zituzten amak eta seme-alabek aitaren ondoan azken hilabeteetan egoteko eta hari laguntzeko: mendiz batzuetan, itsasoz besteetan, beti isilpean, beti arriskupean ibili behar. Andreak behintzat azken lau hilabeteak senarraren ondoan igaro zituen. 1949ko abuztuaren 27an hil zen. Berrogeita hamaika urte bete berri.

Baina ez ziren hil eta gero arazoak bukatu. Espainian agintea zeukatenek ez bide zuten *Egunan* 1937an Luzearrek izenpetuta argitara eman zen artikulua irakurri: "Ez gorrotorik". Amale Arzelusek ematen digu egun haien berri:

### "Ez gorrotorik"

«Muñoatarrak Donibanen bizi ziran. Sendi au Donostin oso ezaguna zan. Aberatsak ziran, baña aberastasunak ez zitun itxutu, eta guda aurretik euskeraren alde lan asko egin zuten. Muñoatar Miguel jaunak jarri zun Donostin leenengo ikastola, 1920 urtearen inguruan. Laguntza bear zuenaren ondoan ziran beti. Gure aiton-amonaren etxe aurrean bizi ziran; betiko ezagunak genitun, beraz. Aita il zanean, Donostira ekarri bear zala bururatu zitzairen. Oso gauza zalla zan eta ez genun uste iritxiko zutenik. Alde batetik, onera ekartzeko baimena ematea ia eziña zala zirudin; bestetik, ortarako bear zan dirurik ez genun. Leenengo lortu bear zana, ekartzeko baimena zan. Ontarako Madrideko norbaitengana jo zuten eta baimena lortu. Diru arazoa ere bere gain artu zuten, eta, orrela, Donostira ekarri aal izan genun aita.

»Aitarekin gure ama eta aizpa etorri ziran; gure bi anaiak joan bezela, mendiz, etorri bear izan zuten.

»Ekarri zuten ba Donostiko illerrira. Baña illotz ere ez ziran istilluak bukatu. Biaramunean, amar edo amar t'erdietan illobiratzeko gelditu giñan, baña bertara iritxitakoan, lurperatua zegon. Polizia goizeko zazpiretan azaldu, eta indarrean eorzte beartu zutela esan zigun bertako apaizak. Sinisteziña da illa egonda ere pakean ez uztea, bañan illobiratzea zala-ta, giza talde aundia bildu eta agerkundea (manifestazioa) eratuko zanen beldur ziran.

»Ez zan onekin bukatu "festa". Illeta-elizkizuna ere, ezin izan genun nai bezela egin. Santa Maria elizan, goizeko amaiketean genun ordua, baña bezperan, gauez, erretoreak deitu zigun goizeko zortzi t'erdietara aurreratzeko agindua jaso zula Gubernutik esateko. Zearo beldurtuta ageri zan, eta bat-batean onartu egin bear izan genun. Baña ez giñan lasai gelditu, egunkarietan 11:30etan izango zala jartzen baitzun. Orduan, Donostiko Irratira deitu eta illetaren ordua aldatu egin zala adierazteko eskatu genien. Irratiko zuzendaria Molina jauna zan. Leen aitatu det guda aurretik gure aitak euskal irratsaioak antolatzen zitula; au zala ta, Molina jaunarekin arremana izan, eta onek begi onez ikusia zun. Irratira deitu ta, ematen ari zirana bukatu bezin laster, albistea zabaldu zuten. Gerora jakin genun, Molinak milla pezetako isuna ordaindu bear izan zula, eta diru asko zan garai artako ere.

»Orrela ba, goizeko zortzi t'erditan izan zan elizkizuna, eta, irratitari esker, jende ugari bildu zan. Baña bagenekin askok ez zutela jakingo ordua aldatu zanik, eta Amarako Karmeldarrai ea amabitan meza eman zezaketen galdetu genien, eta auek baietza eman ziguten. Orduan, Ander eta Iñaki, gure anaiak, eta Andoni, nere senarra, amaika t'erdietan Santa Maria eliz-atarian jarri, illetara zetozenei gertatutakoa adierazi, eta Amarara bialdu zituzten. Oartu zeraten bezela, jende asko bildu ez zedin,

illeta-elizkizuna aurreratu arazi zigutenei, oso gaizki atera zitzairen beraien jokoak; batean izan bearrean, bitan ospatu baitzan».

### Luzearren idazlanak

1931an argitaratu zuen, *El Díaren* orrialdeetan, bere lehen antzerkia: *Gibelaundi*. Lehen orrian honela dio: “Luzearek euskeratutako elkarrizketa. Donostiako Eusko Etxea-n antzestu zan lenengo aldiz”, 1929ko abenduan, Santo Tomas egunez. Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen dute eskuizkribua. Bertan ageri da urtea: 1929. Aldaketa nabarmenak daude eskuizkributik *El Díako* argitalpenera.

Zenbat aldiz antzestu den ikusita, *Neskamearen marmarrak* bakarriketa laburra da zalantzarik gabe Luzearren lanik ezagunena. A.M. Labayenen *Antzerki* aldizkarian argitaratu zen lehen aldiz (1934), eta Luzearren alaba Amalek antzestu zuen aurrena.

*Gibelaundi* eta *Neskamearen marmarrak* biak elkarrekin bildu zituen Eugenio Arocenak A. Arzelus eta A.M<sup>a</sup> Labayen, 98 belaunaldiko antzerkilariak izenburupeko liburuan, eta, Azpeitiko Antzerki Topaketak zirela eta, herri horretako Udaletxeak argitaratu zituen 1998an.

Gaur hemen aurkezten dugun lana, Dickensen *Eguarri Abestia (The Christmas Carol)*, 1931n, *El Dían* argitaratu zen.

Bernardo Estornes Lasak gazteleraz idatzitako *Historia Vasca* eskola-liburua euskaratu zuen, eta “Beñat Idaztiak” etxeak argitaratu zuen, 1935ean, *Euskal-Edestia* izenburupean.

Horretaz gain, nik dakidala inoiz argitaratu ez diren lanak ditu Luzearek. Koldo Mitxelenak *Historia de la Literatura Vasca* ohartarazten zuen: “autor también de interesantes ensayos dramáticos aún inéditos”. Donostiako KM Kulturunean honako eskuizkribuak daude gordeta: *Exkonberri ameslari (Luzearek euskeratua)* eta *Kirten-en gauzak*. Seguru asko bi pieza labur hauek gerra aurrekoak dira.

Kartzelan zegoela idatzi zuen *Kirkil abestia* eresidun antzerkia (Dickensen *The Cricket on the Hearth* ipuina oinarri hartuta egokitua; musika, beste preso batek, Bengoak, jarri zion). *Gonagorritxo* eta *Marraktxarra* haur antzerkiak ere espertxean idatziak dira.

Azken hiru hauek Sabino Arana Elkargoak argitaratu zituen *Askatasun Ipuinak* izenburupean, 1998an.

Seguru asko, garai hartakoa da *Dirugosea* antzerkia ere, hiru ekitaldiko drama. Antzerki hau ez da sekula argitaratu, eta eskuizkribuaren fotokopia bat Donostiako KMn dago.

Familiak gordetzen du *I ta ni, iru*, Enrique Jardiel Poncelaren antzerkiaren itzulpen-egokitzea eskuizkribuan. Jardiel Poncelak 1945ean argitaratu zuen *Tu y yo somos tres*, beraz, Luzearren azken urteetako lana da egokitzapena.

Donostiako KMn gordeta daukate Luzearek, 1930eko urrian, Lezon eman zuen hitzaldi baten eskuizkribua. Hitzaldiak ez du izenbururik, baina Jon Garbizu “Zubigar” Lezotar olerkariari buruzkoa da. Aski interesgarria gainera, ez bakarrik Zubigarren lana ezagutzeko, baita olerkigintzaren gaineko Luzearren beraren usteak eta hausnarketak jakiteko ere.

Antzerki asko idatzi zuen kartzelan. Eskuizkribu gehienak familiak gordetzen ditu. Lehen aipatutako *Kirkil abestia* da bat, eresidun antzerkia (Dickensen *The Cricket on the Hearth* ipuina oinarri hartuta egokitua; musika, beste preso batek, Franzisko Bengoak, jarri zion). *Gonagorritxo* eta *Marrakatxarra* haur antzerkiak ere espetxean idatziak dira. Azken hiru hauek Sabino Arana Elkargoak argitaratu zituen *Askatasun Ipuinak* izenburupean, 1998an. Garai hits hartakoa da *Dirugosea* antzerkia ere, hiru ekitaldiko drama. Antzerki hau ez da sekula argitaratu, eta eskuizkribuaren fotokopia bat Donostiako KMn dago. Familiak gordetzen du, bestalde, kartzelan eta komuneko paperean idatzia beste antzerki bat. *Eziñ-eramana* du izenburu.

Kartzela garaian abesti batzuk ere idatzi zituen. Bada bat, *Itun* izenekoa, “Tristesse... (tristeza de amor. Sobre un tema de Chopin)” Juan Ortiz de Mendivilen partituraren gainean idatzia. Gero beste bat, *Dueso-ko espetxeratuen ereserkiak* izendatu zituzten bi pieza, Luzearren letra eta Radaren musikarekin<sup>4</sup>. Eta azkenik, beste lau abesti, E. Errazkinen musika, F. Martiarenaren armonizazioa, eta Luzearrek letra idatzita: *Maitetxo*, *Nere emazteari*, *Ene Aberria!*, eta *Maitasuna*.

Kartzelatik atera eta Iparraldean zegoela ez zion idazteari utzi. Familiak gordetzen du *I ta ni, iru*, Enrique Jardiel Poncelaren antzerkiaren itzulpen-egokitzea eskuizkribuan. Jardiel Poncelak 1945ean argitaratu zuen *Tu y yo somos tres*, beraz, Luzearren azken urteetako lana da egokitzapena. Hil aurreko egunetan, Emmanuel Roblès-en *Montserrat* izeneko antzerki lana euskaratzen ari zen Luzear frantsesetik. Ekintza Bolivarren garaiko Karakasaren kokatuta dago, eta, Montserrat, espainiar ofizial baten abizena da. Luzearrek abizena aldatu zion, eta *Ibarrola* jarri. Erdia edo itzultzera iritsi zen. Bukaera, Luzearren adiskide eta bere suhiaren aita Joseba Zinkunegik eman zion. Bi eskuizkribuok familiak dauzka gordeta.

Familiak gordetzen dituen eskuizkribuen artean, bada lau orrialdeko bat, aski esanguratsua, eta izenburu hau duena: “Atzoko europar baten oroipenak. Stefan Zweig-ek”. Idazle austriarraren *Die Welt von Gestern (Atzoko mundua)* oroitzapen-liburuaren kapitulu baten itzulpen saioa da, *Austriara itzultzea* izeneko kapituluarena, hain zuzen ere. Uste dut badela Luzearren azken urteetako irakurketen eta interesen lekuko jator.

Arteako Meñaka Jauregian, Abertzaletasunaren Agiritegian, Sabino Arana Kultur Elkargoak gorde ditu Luzearren eta Luzearrekiko hainbat agiri. Besteak beste, 1941ean kartzelan hasi eta hil arteko bere gutunak. Gutun trukaketa, batez ere, Ander Bereziartua adiskide eta burukidearekin egiten du, baina badira beste batzuk ere. Euzkadi Irratiarekin zerikusia zuten paperak ere (asko Luzearrenak) agiritegi horretan daude gordeta.

## Eguarri Abestia

Badu zerbait ipuin honek, bestek ez duena nonbait, euskal itzultzaileak, orain bezain ugariak ez zirenean, aurren berritan bultzarazi dituen itzulpen-saioak egitera. Luzearren saioaren berri izan ez, eta Xabier Mendiguren Bereziartuk ingelesa ikasi eta zerbait itzultzea bururatu zitzaionean, Dickensen lan horrekin abiarazi baitzuen bere itzulpengintzako bide oparoa. Saio harekin pozik ez nonbait, eta tiraderaren batean gordea gelditu zen urte askoan. Urteak joan urteak etorri, 1990eko egun batean, berak bezala Luzearren saioaren berri ez zuen argitaratzaile batengana joan, eta lehen bertsio hura erabat berrituta aurkeztu zion argitaratzeko. Urte hartako abenduan eman zen argitara liburua, Erein argialetxean, *Gabon kanta bat* izenburupean. Lerro hauek idazten ari dena zen argitaratzaile ezjakina.

2003an, Hiria Argialetxeak beste itzulpen bat kaleratu du, *Eguberri kanta*, Nerea Mujika Arandak egina.

Hitzaurre honen hasieran aipatu dut noiz-non-nola argitaratu zuen itzulpen hau Luzearrek. Ez naiz horretan luzatuko beraz. Esan behar da, argitalpena bukatu zuenean, azken atalarekin batera, ohar bat atera zuela egunkarian, nahikoa interesgarria, “Eus-kal-orri irakurleak, zer deriozkiozute?”:

Amaitu det nere lenengo euskal ingurtitxo saioa. Egunkariak eskatzen duan tankeran, egunean egunekoa itzuliaz, juan zaizute Dickens-en “Eguarri Abestia”. Ez det neronek ere nere lana osorik irakurri, baña akasduna izan bear naitanaez; orrexegatik gañera. Zatika-zatika, ta askotan astirik ezak beartuta egiña izanik asieratik azkenera bi eskuk idatzia ematea, ala atzo emana gaur berrizturik arkitzea gerta baileike. Ez natorkizue beraz gauza aundiren bat egin dedalakooan “koipe” bila, neronen burua iñork baño obeto ezagutzen det eta. Iñoren gogoa ase nairik egindako saio baten ondoren ordea, asenai ori bete ote dan ala ez jakin naiean idazten dizkizuet lerrotxo auek. Euskal-Orri irakurle guziak erantzutea nai nuke. Bi lerro idatzi, bi xentimoko sello batekin bialdu ta kito. Ona zer jakin nai nuken: “Eguarri Abestia”, irakurri al dezu? Ebaki ta jaso al dezu? Ulerkaitza izan al zaizu? Euskal-Orrian onelako ingurtitxoak atsegin al litzaizkizuke, ala gañontzeko idazkaiak naiago dituzu? Beste esan bearrik ba al dezu? Bi lerro idatzi zaizkidazu, arren, eta EL DÍA-ko “Euskal-Orria” “Apartado 130 Donostia” zuzenbidearekin bialdu gaur bertan, idazkazal irikian, bi xentimoko selloarekin. Eta eskerrik asko.

Bertan esaten zaigu nola egiña zuen itzulpena: “egunkariak eskatzen duan tankeran, egunean egunekoa itzuliaz”. Ez zaigu argitzen ingelesetik edo gazteleratik itzuli ote zuen. Gorago aipatu dudan iragarkian, ordea, horrela esaten digu: “Igandoan asiko gera noski, *ingeleratik* itzulitako ‘nobelatxo’ bizi, irakurgarri, labur bat argitaratzen”. Lana irakurri eta gero, gaztelaniazko itzulpena eta ingelesezko jatorrizkoa alboan eduki eta gero, bi gauza esatera ausartzen naiz, beldurrez bada ere. Bata, seguru asko bi bertasioak eduki zituela begien aurrean; eta bestea, hori bai seguru, ez dela hitzez hitzeko itzulpena, egokipena baizik.

Ez da harritzekoa egokipena izatea, Luzearrek irakurgai egokiak eskaini nahi zizkien orduko euskaldunei. Hori zuen helburu nagusia. Hori egin zuen itzuli-egokitu zituen gainerako ipuintxo eta antzerki lanekin ere. Batzuetan ez du nondik egokitzen duen ere esaten. Pentsatu behar dugu garai hartan ez zegoela orain adinako aukerarik euskaraz irakurtzeko. Luzearrek irakurgai goxo egokiak eman nahi zituen.

Eta goxotasuna eta egokitasuna ezin ukatu zaio *Eguarri Abestiari*. Ez naiz harritzen Mitxelenaren oroitzapenean harri xuri batez markatuta geratu izana hura irakurri zuen eguna.

Eta egokipenen artean, ez da txikiena izenena. Luzearrek euskaldundu egiten ditu bertako protagonistenak, nahiz eta ekintza “London”en kokatu. Pertsonaia nagusia, Ebenezer Scrooge, Iñaki Ezkurra bihurtzen du. Ez dut uste aliritzira egokitutako izena denik. Kontuan hartu behar dugu, Scrooge abizena xuhurkeriaren sinonimo bihurtu dela ingeles tradizioan, Harpagon bezala Frantziakoan. Ezkurra, euskal abizena izateaz gain, bada jakina haritzaren edo artearen fruitua, baina baita diruaren sinonimo ere. Honela dio Kirikiñok bere ipuin batean: “Iragintza kontratakin ezkurra polito baturik...”. Orotariko Euskal Hiztegian Kirikiñorenaz gainera, Apaolaza, Erkiaga eta Uztapideren adibideak datoz.

Scroogeren baltzukide Jacob Marley, *Jagoba Marlegi* da Luzearrenean. Scroogeren umetako laguna: Valentine, *Balendin* da; Orsoni ez dio izenik aldatu eta Dick Wilkins-i *Jon Larzabal* jarri dio. Fan, Scroogeren arreba, *Garbiñe* da. Fezziwig jauna, *Lertxundi*. Andregai izandako Belle, *Josune*. Scroogeren idazkaria, Bob Cratchit, *Yon Zubiri* da; honen andreari ez dio Dickensek izenik jartzen, Luzearrek *Andre Miren* bataiatzen du; bi hauen seme-alabak dira: Belinda (*Iziar*), Martha (*Marte*), Peter (*Kepa*), Tiny Tim (*Xabiartxo*) eta Cratchit txikiak (*Xubiritxoak*). Scroogeren iloba Fred, *Ibon* da; Topper, *Mikel*; Joe zaharra, *Txomin*; Mrs Dilber, *Andre Joxepa*; eta Caroline, *Karoline*.



Euskararen zain-zainetik idatzia dago *Eguarri Abestia*. Jatorrizko idazkiak dakarrena orpoz orpo jarraitu gabe, euskaraz emanda, euskal ipuin zaharren kutsu halako bat erantsiz. Ez dut esan nahi gaur egun jarraitu beharreko eredia hori denik noski. Harrezkero bidea egin du itzulpengintzak euskaraz, bide emankorra beharrik, baina ez ditzagun ilunpetan utz bide hori bide ez zenean aitzurra eta pala hartu eta aurreneko lurak mugitu zituztenak.

Joskera aldetik, Luzear, Altuberen eskolakoa dela esan genezake lasai asko. Ez dut uste hala ere irakurketa zaildu egiten duenik. Zailtasun bakarra, eta ez handia, hiztegia izan daiteke. Garbizaletasunaren auzian, ordea, ez da inola ere garbizalekeria erabiltzen zutenen iritzi bereko. Tradizio zaharraren putzutik ateratzen du ura Luzearrek gehienbat. Eta eskas zaionean, orduan bai, neologismora jotzen du, batzuetan garaiko hiztegiatara –Bera-Lopez Mendizabal eta Azkue buruz zekizkiela esatera ausartuko nintzateke–; besteetan, buruan bi buelta eman eta bere euskal senetik atonduta. Zailtasun horretarako aringarri, hiztegi bat aurkituko du irakurleak liburu honen azken partean.

### **Vernerekin bueltaka**

Badakigu, iragartzera ere iritsi baitzen, lan gehiago itzultzeko asmoa izan zuela Luzearrek. Zehatz esanda, honela iragartzen du 1931ko maiatzaren azken egunean: “Laster, irudimen bizi erri aztartzalle idegabe ta idazle oparotsuenetakoa izandako Jules Ver-ne-ren irakurgaietako bat argitaratuko degu”. Eta Ekainaren seian, beste iragarki batean zehazten du zein nobela itzuli behar duen: “Julio Verne-ren irakurgairik politenetakoa ez ote da “Larogei egunean, ludiari bira”? Orixe dezu ba egun gutxi barru eskeñi nai dizuguna”. Ekaina osoan zehar iragartzen du argitarapena laster datorrela. Gero, isiltasuna. Abuztuan 9an, eta kolaboratzaile batzuen kexuak entzun ondoren, artikulua adierazgarria argitaratzen du, izenburu adierazgarriagoarekin: “Beazun tantoak. Euskal Orriaren bearra”:

Izperingi landola batean egon ez danak ezin lezake, emen, barren ontan, zenbateraño gibelak bear degun, urruti xamarretik, amar bat kilo gorabera dirala ere nabaitu. Txorrotx xamarrak geranoi ere bi bide erakusten dizkigute: gibelaunditu ala alde. Ez dago tarteko mallarik. Eta zerbait egin naiak bagarabizki, amaika aldiz ortzak estutu, ta bereak eta bost norbaiti esango genizkiolakoan, esanbear guziak atzeko patrikan gorde ta, “Onela bizi bagiña beti” abestu oi degu. Orregatik gure idazkide maiteak beren irakurgaitxoren bat edo beste argitaratu etzaiotelako goibel ikusteak samindu oi gaitu benetan. “Errena”k adarjotzalleen buru egiten nindun lengo batean. “Iturralde”k bere berriak nik nai banuan argitaratuko zirala zion. Eta aspaldi ontan erdipurdi dabizkitelako aitatzen ditudan oez gain, beste lagun pillak bat ere aserre xamar izango ditut noski beren lanak berandu azaldu ala argitaratu ez diralako. Ez naiz ni, ez, adarjotzalleen buru, “Errena” adiskide. Ezta ere Jainkoa, “Iturralde”, emen nai dedana egiteko. Onela balitz Jules Verne-ren “nobela” polita aspaldi asia nuan. Eta zuen bion berriak aidian agertuko lirake. Baña... Aurrentzat amabostean bein edo osatu nai nuan orritxo alaiak potu egin duala ikusten ez dezute? Nun da gure andereñoen orri berezia? Nere asmo begikoak etziran ba? Zer egitea nai dezute ordea “anuntziyo” asko dan egunean orria auts egiten badidate? Zer, euskera, gure euskera gaxoa, besterik ez danean bakarrik ontzat artzen badidate? Zuek eta ni lan aberkoi, garrantziduna, egiten degulakoan ari gera. Baña ez uste besteak orrela dalakoan daudenik. Bai zera. Gure txepelkeriak iñongo argirik piztu al dezateke ba?

Hau irakurrita edonori datorkio burura kontu bat: ez dira ba asko aldatu denborak! Ez dakiguna da Verneren nobela itzultzerak iritsi zen edo ez. Baliteke inon egotea itzulpen hori. Dakiguna da Joxe Migel Zumalabek, 1936ko gerratean, Eusko Ikaskuntzako bulegoetan utzi zuela nobela horren itzulpen bat. Baina desagertu egin zen tamalez. Ez dakigu Zumalabek berak itzuli zuen edo beste batek itzulia utzi zuen han. Agian, batakin zein besteak itzulia izan, egunen batean agertuko da!

## Gure edizioa

Gure edizio hau egiteko Donostiako Udal Liburutegiak nire esku utzi dituen mikrofilmeeen fotokopiez baliatu naiz. Irakurketa ez da beti erraza izan. Batzuetan, –egunkarietako ohitura noski–, akatsen bat sumatzen zelarik, zuzentzen saiatu naiz, argi ikusten bazen behintzat zein zen akatsa. Zerbait falta zela iritzirik, hondatuta edo ezabatuta ageri zelako, adibidez, ingelesezkora jo eta parentesi zuzenen barruan sartu dut eskas zuena, eta oin-ohar bidez argitu.

Luzearrek argitaratutako bertsioa ematen ahalegindu naiz eginahalean, oso gauza gutxi aldatuta. Hona ukitu diren gauzak:

–Izen propioen ondoko apostrofoak kendu ditut ia erabat: Yon’ek > Yonek.

–‘r’ gandordunak ‘rr’ bikoitz bihurtu ditut. Gauza bera ‘l’ eta ‘t’ hizkiekin.

–Galdera eta harridura markak esaldi hasieran eta bukaeran daude jatorrizkoan. Nik bukaeran bakarrik ezarri ditut, gaurko ohituraren arabera.

–Hitz elkarketetako marrak eta puntuazioa nahikoa ukitu ditut, gaurko ohiturei jarraituz, eta beti ere argitasunaren mesedetan.

–‘S’-‘z’ hizkien nahasketa zuzentzen ahalegindu naiz. Hona hemen zuzendu diren hitzak: arrizko > arrixko; arramaska > arramazka; aberaztu > aberastu; aztun > astun, eskutatu > ezkutatu; eskutuki > ezkutuki; azke > aske; azkatasun > askatasun; azkatu > askatu; kamutz > kamuts; karrazi, karraizi > karraxi; osta-osta > ozta-ozta; erakutzi > erakutsi; azaldata > asaldata; zakon > sakon, igeltzu > igeltsu; esker-eskubi > ezker-eskubi; mazti > masti; matz > mats; matasa > mataza; akatz > akats; irrizta > irrista; sentsuzko > zentzuzko; eguraztu > egurastu.

–‘Y’ grekoa bi kasutan bakarrik erabiltzen du: “iya” eta “biyar” hitzetan. “Ia” eta “biar” aurkituko ditu irakurleak.

–“Palta”, “apaldu”, “apari”, “pin” hitzak “falta”, “afaldu”, “afari” eta “fin” aurkituko ditu.

–‘A’ epentetikoa erantsi diet honoko hitzei: “zalantz”, “eskeintz”, “bizitz”, “grin” eta “giltz”.

–Ahalegina saiatu naiz hitz formak batzen, bi eratara edo gehiagotara agertzen zirenean. Esate baterako, “ezpaitzan” eta “ez baitzan”, “ezpageneki” eta “ez bagenek” eta abar agertzen baitziren, “ez baitzan” eta “ez bagenek” modukoak hartu ditut aintzat. “Bizpide” eta “bizibide” agertzen baita, “bizibide” aukeratu dut. “Ikaz” eta “ikatz” > “ikatz”; “Jaiki” eta “jeiki” > “jeiki”; “Eguerri” eta “Eguarri” > “Eguarri”; “eskar” eta “esker” > “esker”; “aserre” eta “asarre” > “asarre”. Egin dudak aukerak, ikusten denez, ez du askotan bat egiten gaurko euskara batuarekin, baina aukera hori egin badut, autoreak berak gehiagotan erabiltzen duelako izan da.

–Badu beste kasu bat, aparte aztertu daitekeena: “oi” eta “oe” erabiltzen du, gaur egungo “ohe”rako. Hasierako kapituluetan ia erabat “oi”, “oieratu”, “oietik”, “oieko”, “oiera” eta “oiean”. Baina azkeneko kapituluetan, berriz, erabat “oe”, “oieratu” eta abar. Azken horren alde egin dut.

Nire esker ona agertu nahi diot Amale Arzelus Luzearren alabari, eman dizkidan argibideengatik. Iñaki Goigoganari ere mila esker: batzuetan, norberari dagokion lana ongi egitea, gogoz eta eskuzabaltasunez, eskergarria izaten baita.

Inazio Mujika Iraola  
2003ko ekainean

Oharrak:

1) Atal honetan ageri dena Ander Arzelusen alaba zaharrenak, Amalek, kontatzen du liburuxka batean: *Arzelus'tar Ander "Luzear" (1898-1949)*, Euzkeratzaintza, 1998.

2) Bitarte horretan, lehenago bezala Madrilen, Koldo San Sebastian historialariak dioenez, EAJren buruzagi nagusi bihurtu zen Gipuzkoan. Horiek ziren alabak esaten dizkigun aitaren "lanak". Ikus Koldo San Sebastián, "Ander Arzelus", *Euzkadi* 1986/09/18. "Lan" horietako bat 1945eko ekainaren 1ean egin zuen. Egun batzuk lehenago, Joseba Rezola Euskal Erresistentziaren buruzagi nagusietako bat atxilotu egin zuten Madrilen, eta, egun hartan, Iruna zekarten epaitzera, bi guardia zibilen artean. Madrilgo geltokian Pello Irujo inguratu zitzaion Rezolari, ihes egin behar zuela esatera. Hernanin igo zen Arzelus. Aurrez aurre eseri, eta euskaraz esan zion zerbait presoari. Donostiako geltokian ihes egin zuen Rezolak. Arzelus traban jarri zitzaien guardia zibilei. Pentsatzekoa da, gainera, Luzearrek eskuratu zizkiola Donostian ezkutatzeko lekuak, harik eta Iparraldera pasatu zen arte, handik bi hilabetera (Ikus Eduardo Jauregi Beraza; *Joseba Rezola, gudari de gudarís. Historia de la Resistencia*, Fundación Sabino Arana, 1992).

3) Juan Ajuriagerra Donostian ezkutatuta zegoela, Valdestarren Villa Izarra etxean egoten zen. Iñaki Valdesez kontatu zizkion Pelay Orozcori Luzearren ihesaldiaren berri gehiago: "Cuando se escapó Ander Arcelus, estuvo varios días viviendo, podíamos decir, como un gato, en los tejados. Por las noches intentaba cobijarse en cualquier sitio que le ofreciera abrigo bajo techado. En una de estas ocasiones, parece que quiso entrar en algún piso que estaba abierto y desde dentro empezaron a gritar: "¡Ladrones, ladrones!", por lo que el bueno de Arcelus tuvo que salir de allí volando. Y así estuvo varios días, sin comer. Un buen día llego aquí, porque conocía el refugio de Juan [Ajuriaguerra]. Y te vas a asustar: aquel día se comió ¡catorce pasteles seguidos!". Pelay Orozco, Miguel; *Juan Ajuriaguerra, su vida, su obra, su muerte*, Idatz Ekintza, 1987. Amale Arzelusi esker dakigu, aita ezkutatuta zegoela ere, Aldakonea gaineko Usandizagatarren etxera joaten zela gazte talde bat prestatzen ari zen euskarazko antzerki lana zuzentzera.

4) Bitxikeria moduan esan dezadan, familiak gordetzen duen eskuizkribuan ageri den letrakera ez dela Luzearrena. Nik esango nuke letrakera hori Koldo Mitxelenarena dela.